



**Oier Gorosabel**  
Fisioterapeuta eta osteopata

## Ugazaba kaxkarra

**N**i ugazaba kaxkar bat nintzen/ eta kolore urdinez/ eskribatzen nuen gaez...». Barkatuko al didate Mikel Arregik, Imanol Larzabalek eta sindikalista guztiek kantu eder honen profanazioa. Baina enpleguak izan ditudan azken hogeitortan askotan aurkitu naiz antzeko egoeran, zenbakiak koadratzeko malabarismoak egiten desordutan, eta sentimendu nagusia bakardadea izan da. Gaurkoan, agur eta ohore egin nahi diot atzean utzi berri dudan aro horri eta, nola ez, denbora horretan niretzat lan egin duten guztiei.

Izan ere, langile gehienekin harreman ona izan badut ere, gure lan estiloak (kalitatea iparrorratz) ez dit sekula irabazi handirik eman. Uste dut Gregorio Marañon mediku ospetsuak esana dela: «Osagile bezala aberastu nahi duenak, okerreko ofizioa aukeratu du». Nik ederto baitakit aberasteko zer egin beharko nukeen: orduro hamar paziente hartu, tratamenduen kalitatea jaitsita, edota langileak baldintza miserabletan izan. Baina ez dut ez bata ez bestea nahi.

**Ez naiz autonomo gaixoen pena eta doloreak kantatzen hasiko, noski; horren orde, hogeitortan eginiko hanka-sartze nagusiak kontatuko dizkizuet, barre pixka bat egin dezazuen.** Nire kasuan, «bekatu orijinala» osasun aseguruarekin lan egiten hasia izan zen, Markina-Xemeinen: paziente piloa bidaltzen hasi ziren; ezin nituen denak hartu, lankideak ekarri nituen; lankideoi ordaintzeko, paziente asko hartzea beharrezkoa zen –aseguruak gutxi ordaintzen baitziguten... Gorpil zoro xelebrean harrapatua geratu nintzen, «Lanez Lepo Izan Arren, Ostiarik Ere Irabazten Ez Duen Fisioterapeutaren Sindrome» tipikoak jota.

Egoera horretan, nire ezjakintasun ekonomikoan arrazonomendu xelebre hau egin nuen: «Oso gutxi irabazten dudanez, beste zentro bat irekiko dut; horrela, gutxi gehi gutxi, gehiago irabaziko dut». Hori izan zen Ondarroan bigarren kontsulta irekitzeko arrazoia.

Ekonomiaz zerbait dakitenen irribarre maltzurra ikus dezaket; bada, lagunok, egon pixka batean, hanka hirugarrenez sartu bainuen, hirugarren fisioterapia zentroa ere irekita, Mutrikun. Egin ezazue barre lasai; ez naiz haserretuko. Une batez hamar behargin batera aritu ginen lantaldean, horietatik zazpi fisioterapeutak. Txiste ekonomikoaren azken detaileak: urtero 160.000 euro inguru fakturatzeraz ailegatu ginen... baina 155.000 euro inguruko gastuekin. Etekina, horretara, 5.000 eurokoa zen, hutsaren hurrengo alea (enpresa batek, errentagarritzat hartua izateko, %20 eta %30 arteko etekina beharko luke); edozein obra, konponketa, baja edo kaleratzeri aurre ezin egiteko modukoa. Zorionez, ekonomiaz nik baino gehiago dakien jendea kontratatatu nuen, eta egoera nolabait bideratu zen.

**Bistan da «Irabazirik Gabeko Erakundea» izatea ez zaidala sekula gustatu; halere, gehien erre nauena ez da hori izan, langile batzuen jarrera baino. Zorionez oso gutxi izan dira.** Ulergarria da bakoitzak bere interesei begiratzea, baina beharginak baldintza duinetan mantentzeko ahaleginak egin ostean, batzuk gutaz aprobetxatzen saiatu dira (depresio baxa faltsuak, kaleratze faltsuak eskatzea, ospitaletako hitzarmena exijitzea... gehienetan ELAko aholkularien eraginez). Beraz, lehendik datu ekonomikoek laguntzen ez bazuten ere, hauxe izan da langileak izateko gogo definitiboki kendu didana.

Hasierako puntura itzuli naiz, beraz: pazientea eta ni. Besterik ez dut behar. Agur beroa eta eskerrik asko nirekin aritu zareten fisio guztiei (bai, guztiei).

www.abante.eus •



Autonomoak maiz aritzen dira zenbakiak koadratzeko malabarismoak egiten desordutan.

GAUR8